

Pozaren eta beldurraren artean

Maidar Iantzi
Goienetxe

Dirudienez, gure garuna ezkor jartzen da biziraupenaren alde. Haurrek ez daukate oraindik parte hori garatua, hortik poz betea. Elsa Punseti entzun diot honetaz. Kontu interesgarriak erran ditu. Adibidez: harreman batean sentimendu baikorrak bost aldiz gehiago izan behar dira ezkorrak baino, eta gure buruari galdetzea komeni zaigu: zenbat poz dugu? Umeengana bueltatuz, dioenez, egunero dugu aukera, egiten dugunarekin, pozaren eta beldurraren artean aukeratzeko erakusteko.

Esnatu ondoko errituak garrantzitsuak dira niretzat eguna ongi hasteko: leihoak zabaltzea eta zer eguraldi datoren begiratzea, gosaria mimoz prestatu eta dastatzea, kafe usaina eta hotsa, irratia, egunkaria, liburu baten zatitxo bat... Ekintza horiek badute zerbait sakratua, hagitz gozagarria. Niretzako tartetxo bat hartuz hasteko moduak direlako. Eta gustatzen zaizkidalako hasierak. Aukerak dira.

Zentratu alda dezakezun horretan, eta utzi joaten aldatu ezin duzuna. Are gehiago: onartu zuk hautatu bazenu

bezala. Zer erronka handia Punsetek jartzen diguna. Baina zentzu guztia du. Zer alda dezakezun eta zer ez zalantza duzunetan, itsasoko olatuetan pentsatzea proposatzen du idazleak: itsasoko olatuen antzekoak diren gauzak ezin dituzu aldatu. Urrundu egin zaitezke, murgildu, surf egin... Beti ari gara bertzeak aldatzen saiatzen, eta ez du logikarik, inor ez dagoelako hemen nire beharrak asetzeko. Bakoitzak ditu bereak. Aldatu nahi badut nik aldatu behar ko dut. Pertsianako xirrikitutik argia sartzen den aldiro dut aukera. •

Tipula ustela

Xabier Mikel
Errekondo

Mundua jota dago. Covidaren izurriak jota, eta mailaz maila ari gatzatzeko aurre egiten, ahal den moduan, erabakiak goiti-beheiti hartzen, tipula-azalak nola. Aitzitik, ardurak beheiti-goiti behar ditugu hartu eta arauak, dela gaur halakoa nola bihar kontrakoa, zintzo bete elkartasunaren izenean.

Sanchez-Macron tandem bezala, Urkullu-Chivite aginte makila eskuan, tipularen goreneko azalean; beherago LABI edo delako batzorde teknikoak. Hurrengo mailan zientzialariak, modan nahitaez. Oso goian, onuradunak beti, enpresa eta enpresari *lobby*ak. Jarraian administrazioak,

legebiltzarrek, aldundiak eta udalak. Azken aurreko azalean, ustelena agian, agintarien arauak bete ala ez betetzeak egiten gaituzten herritar on/gaiztoak etengabe gogorarazten dizkiguten gezi pozoidun jaurtitzaileak, hedabideak eta iritzia emateagatik kobratzen duten profesionalak nola mertzenarioak... bozgorailuak. Tipularen muinean, hauskorrenak, enpresa txikia, autonomia, langilea eta herritarra.

Hemen, izurritea baino kaltegarriagoa dena, tipula usteldutik propio sortu pozoiak jotako gizartea noraezean doa, on eta gaiztoen arteko arrakala artifizialean.

Ezarri arauak erlijio dira eta obediencia itsuaren printzipioa ezarri da polizia-

on papera hartu eta “gaiztoa” seinalatzeraino. Bitartean, gero eta ustelagoa dagoen tipulari ez diogu usainik hartzen.

Bada, mesfidantzaz elkar desegin ez gaitezen, jarri fokua tipularen goreneko mailara eta behartu dezagun egia, albora-raziz erdi-gezur eta erdi-egiak. Nahiz, ez gaitezen izan erlegegiak, agintaria zor baitzaio alderdiari bezala *lobby*ei, eta ez herritarrei.

Aitortzen dut egoerarik makurrena bizitzea tokatu zaidanean sentitu dudala egia osoa ezagutzeko beharrik handiena, jakinda ere mingarria eta agian jasanezina eginen zaidala.

Garestiegi dago egia. •